



HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA

2022ko martxoaren 1eko bilkura

Bi mila eta hogeita batgarren urtean eta 2022ko martxoaren lehenean, zortziak eta erdietan, herri honetako Herriko Kontseilua, erregularatasunez deitua izanik, legeak manatzen duen kopuruan bildu zen, Herriko etxeko gelan, Jean-Marc OÇAFRAIN Auzapezaren lehendakaritzapean

Hor zirenak : AYÇAGUER Elorri, CHAMALBIDE Corinne, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, GOICOECHEA Iñaki, IDIART Claudine, IÑARRA François IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie

Barkatuak zirenak : CASIRIAIN Elena, HEGUY Antton

Bilkurako idazkari izendatua izan da : FALXA Odile

Deialdiaren eguna : 2022ko otsailaren 25a

Afitxatze eguna : 2022ko otsailaren 25a

2.ERABAKIA 2021eko KONTU ADMINISTRATIBOA BOZKATZEA

Herriko kontseiluak,
Jean-Claude IRIART lehen axuantaren lehendakaritzapean bildurik,
Jean-Marc OÇAFRAIN auzapezak apailatutako 2021eko kontu administratiboari buruz eztabaidatu eta,
2021eko kontu aldiaren Kontu Administratiboa bozkatzeko du eta kontuak horrela finkatzen ditu:

<u>Inbestimendua</u>		
Gastuak	Aitzinikusia:	2 269 000,00
	Erabilia:	1 849 410,35
	Erabiltzeko soberakina:	243 312,00
Diru sartzeak	Aitzinikusia:	2 269 600,00
	Erabilia:	1 719 002,54
	Erabiltzeko soberakina:	286 472,00
<u>Funtzionamendua</u>		
Gastuak	Aitzinikusia:	1 465 486,00
	Erabilia:	828 971,95
	Erabiltzeko soberakina:	0,00
Diru sartzeak	Aitzinikusia:	1 465 486,00
	Erabilia:	1 662 619,20
	Erabiltzeko soberakina:	0,00
<u>Kontu aldi bukaerako emaitza</u>		
	Inbestimendua:	-130 407,81
	Funtzionamendua:	833 647,25
	Emaitza orokorra:	703 239,44

Kide kopurua : 15
Hor zirenen kopurua : 13
Balizko boz kopurua : 13
ALDE : 13
KONTRA : 0
ABSTENTZIO : 0

Hala erabakia, gaineko egun, hilabete eta urtean. Bertaratu diren kideek sinatu dute erregistroan. Araberatasunez ziurtatu erabakia.

ORTZAIZEn, 2022ko martxoaren 1ean
Auzapeza,
Jean-Marc OÇAFRAIN



Betegarria bilakatu den akta,
2022/03/15ean publikatu edo notifikatu ondoan,
Eta Prefeturan pausatu ondoan 2022/03/15ean.